

## Ariketa:

### Aktitudeen analisi funtzionala.

#### Ariketa honetan lantzen diren gaitasunak:

Orokorra:

- Mezu pertsuasiboen diseinuan, xede-taldearen analisia edo xede-taldeari buruzko hausnarketa abiapuntutzat hartzea.

Zehatzagoak:

- Mezu pertsuasiboa hartzaileen alegiazko motibazioetara egokitzea.
- Eredu teoriko-enpirikoetan oinarritzea hausnarketa egiteko.

#### Sarrera.

Aktitudeen analisi funtzionalak aktitudeen azpian egon daitezkeen motibazioak aztertzen ditu.

Aktitudeek hainbat funtzio edo beharizan bete ditzakete eta, beraz, aktitudeak sailkatu daitezke betetzen dituzten funtzioak kontutan hartuta.

Idea honetatik, pertsuasiorako garrantzitsua den ondorio bat ateratzen da: aktitude bat aldatzeko mezurik eraginkorrena, aktitude-funtzioaren araberakoa izango da. Hau da, hartzaileari sinestarazi behar diogu proposatzen dioguna onartuz gero, nahi edo behar duena beteko dela.

Hartzailearen motibazioak aintzat hartzeak berebiziko garrantzia dauka pertsuasioan, noski. Motibazioak bitxiak izan daitezkeela ikusteko, hona Shackleton esploratzaileak, Hego Polorako espedizioa prestatzen, garaiko egunkarietan jarri zuen iragarkia tripulazio gizonak erakartzeko:

*Men wanted for hazardous journey. Small wages. Bitter cold. Long months of complete darkness. Constant danger. Safe return doubtful. Honour and recognition in case of success.<sup>1</sup>*

Zalantzarik ez, honelako mezuak hautagai gehienak erakarri baino uxatu egingo zituen. Denak, Shackleton-i interesatzen zitzaion gizon klasea baizik.

---

<sup>1</sup> [http://en.wikipedia.org/wiki/Ernest\\_Shackleton](http://en.wikipedia.org/wiki/Ernest_Shackleton) (2006-2-20)

Gaur egunean ere, aldeak alde, antzeko arrisku eta abenturaren kultura eskalatzaile eta parakaidismo zaleen artean aurkitu daiteke.

### **Analisi funtzional klasikoa.**

Katz (1960)<sup>2</sup> autoreak lau aktitude-funtzio proposatu zituen: utilitariora, ego-babeslea, balio-adierazlea eta ezagutzazkoa.

*Funtzio utilitariora:* funtzio utilitariora duten aktitudeek jendeari laguntzen diote sariak gehitzen eta zigorrak gutxitzen. Objektuek gudan eragiten duten plazer nahiz oinazearen arabera osatzen ditugu, ez gutxitan, objektu horiekiko gure aktitudeak, era horretan beharizan hedonista asetzen dugularik.

*Funtzio ego-babeslea:* geure burua edo auto-onespena babesteko garatzen ditugun aktitudeak, funtzio ego-babeslea betetzen dute. Horrelako kasuetan, aktitudeek lagun dezakete auto-estima babesten, eta barne-gatazkei (segurtasunik ezari, antsietateari, erru-sentipenari...) aurre egiten.

*Funtzio balio-adierazlea:* funtzio balio-adierazlea duten aktitudeen bidez, bere joeren, idealen, arautegien berri ematen du subjektuak. Hau da, norberaren identitaterako edo autokontzepturako garrantzitsu diren balioak adieraz litezke aktitudeen bidez.

*Funtzio kognitiboa:* Aktitudeek ezagutza-funtzioa edo funtzio kognitiboa betetzen dute ere bai. Subjektuek, aktitudeen bidez, mundua ordenatu eta sailkatu egiten dute, era koherente batez, modu horretan asetzen dutelarik munduaren irudi garbi eta esanguratsua izateko beharizan kognitiboa. Aktitudeei esker, subjektuek ordenatu, ulertu, berenganatu egiten dute bestela konplexu, anbiguo edo ulergaitz litzatekeen informazioa. Denok behar ditugu inguratzen gaituen mundua ulertzeko klabeak, eta klabe horietako bat aktitudeak dira. Aktituderik gabe, esperientzia berri bakoitza berrirotik hasitako ahalegin eskerga litzateke.

*Gizarte-egokitzapen funtzioa:* Katz-en aktitude-funtzio zerrendari Smith, Bruner eta White (1956)<sup>3</sup> autoreek proposatutako gizarte-egokitzapen funtzioa gehitu behar zaio ere: aktitudeek jendea laguntzen dute gizarte egoera eta taldeetara egokitzen, talde jakin bateko partaide sentitzen.

---

<sup>2</sup> Katz, D. (1960). The functional approach to the study of attitudes. *Public Opinion Quarterly*, 24, 163-204.

<sup>3</sup> Smith, M.B.; Bruner, J.B.; White, R.W. (1956). *Opinions and personality*. New York: John Wiley.

## **Ariketa. Lehen zatia.**

1. Lan boluntarioaz hitz egin dezagun. Lan boluntariorik egin edo egiten al duzue (hau da, ordaindu gabeko lanik)?
2. Lan boluntarioa oso arlo desberdinetan egin daiteke. Aipatu eta zerrendatu gogora datozkizun arlo guztiak.
3. Zeintzuk izan daitezke lan boluntarioa egiteko arrazoi edo motibazio desberdinak? Aipatu eta zerrendatu gogora datozkizun arrazoi desberdin posible guztiak.

### **Lan boluntarioa egiteko arrazoiak.**

Clary et al (1994)<sup>4</sup> lan boluntarioak bete ditzakeen funtzioak edo, beste modu batera esanda, lan boluntarioaren oinarrian egon daitezkeen ondorengo motibazioak proposatu zituzten:

- Ardura altruistekin lotutako baloreak adieraztea.
  - Ni baino txartoago daudenek arduratzen naute.
  - Benetan inporta zaizkit laguntzen ari naizen pertsonak.
  - Errukia sentitzen dut behartsuekiko.
  - Besteak laguntzea garrantzitsua dela uste dut.
  - Zerbait egin dezaket niretzat garrantzitsua den arazo baten alde.
- Ikasketa esperientzia bat lortzea: jakintza, gaitasunak praktikan jartzea.
  - Lan egiten ari naizen arazoaz gehiago ikas dezaket.
  - Lan boluntarioak gauzei buruzko ikuspegi berria ematen dit.
  - Boluntarioa izanik esperientzia zuzenaz ikas dezaket.
  - Ikas dezaket jende desberdinarekin tratatzen.
  - Nire gaitasunak arakatu ditzaket.
- Besteekiko harremanak garatzea: lagunekin egotea eta/edo beste pertsona garrantzitsuek onesten duten zerbait egitea.
  - Nire lagunek lan boluntarioa egiten dute.

---

<sup>4</sup> Clary, E.G.; Snyder, M.; Ridge, R.D.; Miene, P.K.; Haugen, J.A. (1994). Matching messages to motives in persuasion: A functional approach to promoting volunteerism. *Journal of Applied Social Psychology*, 24, 1129-1149.

- Gertu daukadan jendeak boluntarioa izan nadin nahi du.
  - Ezagutzen dudan jende guztia bat dator gizarte-lanarekiko duen interesean.
  - Nire inguruko jendeak balore handia ematen dio gizarte-lanari.
  - Lan boluntarioa ezagutzen dudan jendearen jarduera inportante bat da.
- Lanpostu bat lortzea erraztea.
    - Boluntarioa izanik burua sartu dezaket gero lan egitea gustatuko litzaidakeen leku batean.
    - Gero lagungarriak izan daitezkeen kontaktuak egin ditzaket.
    - Boluntarioa izanik, lan aukera desberdinak arakatu ditzaket.
    - Boluntarioa izateak lagunduko dit gero nire lanpostua ondo betetzen.
    - Lan boluntarioan esperientzia izatea garrantzitsua izango da nire curriculumean.
- Auto-estimua babestea: pribilegiatua izateagatik errudun sentimendua gutxitzea edo arazo psikologikoei aurre egitea.
    - Txarto sentitzen nintzen nire buruarekin eta boluntario izateak lagundu dit horretaz libratzen.
    - Boluntarioa izanik ez naiz lehen bezain bakarrik sentitzen.
    - Lan boluntarioa eginez ez naiz hain errudun sentitzen pribilegiatua izateagatik.
    - Boluntarioa izateak laguntzen dit arazo pertsonalak arintzen.
    - Boluntarioa izatea ihesbide ona da arazo pertsonaletatik.
- Autoerrealizazioa: pertsona moduan hazi eta garatzea.
    - Boluntarioa izateak garrantzitsu sentiarazten dit.
    - Boluntarioa izateak nire auto-estimua hobetzen du.
    - Boluntarioa izateak beharrezkoa naizela sentiarazten dit.
    - Boluntarioa izanik hobeto sentitzen naiz nire buruarekin.
    - Lan boluntarioa lagun berriak egiteko modu ona da.

### **Ariketa. Bigarren zatia.**

4. Konparatu 3. puntuaren proposatu dituzuen lan boluntarioa egiteko arrazoi posibleak Clary eta lankideek azaldutako motibazioekin.
5. Konparatu Clary eta lankideen motibazioak aktitudeen funtzio klasikoekin.

### **Analisi funtzionala publizitate apelazioak diseinatzeko erabiltzea.**

Hona hemen lan boluntarioaren azoka batera jendea erakartzeko foiletoren baten edukiak, “lanpostu bat lortzea erraztea” motibazioan oinarritutakoa:

**ARAKATU LANBIDE AUKERAK!!!  
GARATU CURRICULUM SENDOA!!!  
LAN – KONTAKTUAK EGIN!!!**

Agian pentsatzen duzu boluntarioa izatekotan, eman, eman eta eman besterik ez duzula egin behar. Baina badakizu zer? Besteei laguntza ematen diezun bitartean, boluntarioa izateak zerbait garrantzitsua egin dezake zuegatik. Harritu egingo zaitu zenbat JASO dezakezun boluntarioa izanik.

Boluntario izanik:

- Lanpostu aukerak arakatu ditzakezu – gehienetan ezin dugu jakin lanpostuak benetan nolakoak diren. Boluntario moduan lan desberdinak probatu ditzakezu, gero zein duzun gustukoaren erabakitzeke.
- Curriculum sendo bat garatu dezakezu – ikasle gehienek curriculumak berdintsuak izaten dira. Lan boluntarioak erakargarriago egiten du zure curriculumareta kontratazio arduradunak txundituko dituzu.
- Lan-kontaktuak egin ditzakezu – zaila izaten da lan munduko pertsonak unibertsitatean ezagutzea. Boluntarioa izanik gerora lagun diezazuketekin kontaktu garrantzitsuak egin ditzakezu.

**BERAZ, IZAN ZAITEZ BOLUNTARIO ETA EMAIOZU HASIERA LAN  
KARRERARI!!!**

**Ariketa. Hirugarren zatia.**

6. Diseinatu lan boluntarioaren azoka horretarako beste foileto bat, Clary-k eta lankideek proposatutako beste bost motibazioetatik nahi duzun batean oinarrituta. Foiletoak ondoko egitura eduki behar du:
- Hiru apelazio labur.
  - Foiletoa zabaldu eta irakurtzen jarraitzeko gomendioa.
  - Motibazio batekin lotutako testu pertsuasiboa.
  - Azokaren kokalekua.
  - Hainbat jarduera boluntarioaren adibideak.

**Ebaluazio irizpideak**

Lan boluntario arlo desberdinak proposatzen ditu	Puntu 1
Lan boluntarioarako motibazio posible desberdinak proposatzen ditu	Puntu 1
Haien proposamena Clary eta lankideen proposamenarekin konparatzen du	Puntu 1
Clary eta lankideen lana aktitudeen analisi funtzional klasikoarekin konparatzen du	Puntu 1
Foiletoaren diseinuak arau formalak atxikitzen ditu	2 puntu
Testu pertsuasiboak ondo islatzen du aukeratutako motibazioa	3 puntu
Testua zuzena da ortografikoki eta gramatikalki	Puntu 1